

DROGETEN

ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 202. alea. 2012ko ekaina



Motor hotsa lagun

Askotan, **konponketa** erantzun egokiena da
Konfiantza eta bermea, gure lanaren gidari

4 x 4



Kamioiak



Tailerra

- 40 urte baino gehiagoko esperientzia dugu ibilgailuen osagaien erreparazioan.
- Gure bezeroen tailerretan jasotzen ditugu piezak, erreparatu ondoren berriz eurei eramateko.



Gure instalazioetan, enpresen ibilgailuak egokitasunez jaso eta kudeatzeko aukera dugu

Deitu edo etorri
eta galdetu

Kalitate-prezio erlazio bikaina

gure produktu eta zerbitzuetan



**AUTO-REPARACIONES
AREITIO, S.L.** **Etab.**

634 errepide nazionala, - 69,5 km.a, Areitio Gaina 15. 48269 - Mallabia

Bulegoa: 943 17 51 00 / Tailerra: 943 17 08 06 / Fax: 943 17 20 15

www.areitiomotor.com / administracion@areitiomotor.com / areitio@areitiomotor.com



UGARRO

AHOLKULARITZA FISKALA,
JURIDIKOA
ETA KONTABILITATEKOA



Mutua General de Seguros

Fernando Orbe. ekonomista
Juan Jose Gorritxategi. abokatua

Zubiaurre, 27
177 postakutxa

ugaro@ugaro.com · forbe@ugaro.com

943 17 43 44
Faxa. 943 17 54 58

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)
247 posta-kutxa
943 17 93 50.
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran, Igone Amesti, Ibaia Azagirre, Estibalitz González, Asier Ibaibarriaga, Ane Saénz eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIO**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Borrajo Racing Team.

LAGUNTZAILEAK:

Justo Azagirre, Juantxo Díez, Leire Elustondo, Jose Miguel Fernández, Fede Iturriagagoitia, Patxi López, Pello Mugarza, Valentín Mugarza eta Izara Rivas.

ARGAZKIAK:

Igone Amesti, Maialen Arrizabalaga, Ibaia Azagirre, Borrajo Racing Team, Leire Elustondo, Nagore Espilla, Ermuko Udala, Fray Juan de Zumarraga Institutua, Lolo García, Estibalitz González, Asier Ibaibarriaga, Valentín Mugarza, Izara Rivas, Ane Saénz, Udal Liburutegia eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

688 63 28 76.

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Andrea Díez, Nora Mateos eta Xabat Uzuriaga.

TIRADA:

2.300 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/94.

Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

UDAKO TXITXIXA *Bisbita arbóreo Anthus trivialis*



Marroi koloreko txorien multzo zabalean sartzen da; desberdintze aldera, eskerrak papar horixka eta hankatxo arrosaxkak dituen! Zuhaitzetan pausatzen da ('arbóreo' izena jarri zionak, ezaugarri horri erreparatuta nonbait) eta bizileku ditu txilar multzoak, basoaren agerrune eta zuhaitzez hornitutako mendilepoak. Habia egiteko baina lurrera joko du, arbola baten enbor buelta

edo garo-hostoren baten gerizpe zabala aukeratuz bere kumeentzat. Kontu handiz zaintzen ditu eta janariarekin bueltan datorrenean, ez da habiara sartuko alde guztietara mesfidati begiratu gabe. Melodia politeko kantua da berea eta hegan doanean kantuari jartzen dion dantzaxoa, ikustekoa! Nire akorduz, ikusi-ikusi Artetan ikusita nago.

Hilabete honetan...

MUSIKA TALDE-TXOKO4

Sin

ELKARRIZKETA:5-7

Inazio Fernandez

MALLABIAN ZER?8-9

Iraitz Udabe

ERREPORTAJEA10-11

Rock & Road musika taldea

MOTZEAN.....12-13

San Juan sua

ERMUAN ZER?14

Txosna gunea Santixauetan

BOTEPRONOAN.....15

Aitor Gorosabel

KIROLZALE16-17

Borrajo Racing Team

IRITZIA18

Giza Eskubideak pertsona guztiontzat

SALEROSKETAK19

Saldu, erosi edo agurtu

ANTZINAKOAK.....20

Ermuko eta Mallabiko argazkiak

KALEKO INKESTA21

Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak

AGENDA22

Santixau aurreko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Sin

Laster 20 urte beteko duen talde ermuar honek 'punkrock erromantikoa' jorratzen du eta hurrengo kontzertua Bilboko jaietan ematekoak dira.

1 *Noiz sortu zen taldea eta zer dela eta?* Betidanik gustatu izan zaigu musika taldekide guztioi. Ez bakarrik entzutea, baita jotzea ere. Hori dela eta, 1994an jotzeko asmoarekin elkartu ginen.

2 *Nondik dator zuen izena?* Hasieran, izenaren bila genbiltzanean, 'Sin nombre' esaten genion taldeari eta azkenean 'Sin' geratu zen.

3 *Zenbat kide zarete eta zein musika tresna jotzen du bakoitzak?* Bost kide gara: Moi (ahotsa), Alberto eta Pablo (gitarra), Javi (bateria) eta Miguel (baxua). Hala ere, urteak aurrera joan ahala, aldaketak izan ditugu baterian: Hasieran Mack egon zen, ostean Maikerek jo zuen eta jarrian Mariok ekin zion. Orain Marioren anaia dago gurekin, Javi.

4 *Zein da zuen musika estiloa?* Punk rocka dela uste dugu. Behin, Eibarko gaztetxeko kartel batean, 'punkrock erromantikoa' jotzen genuela jarri zuten eta egia esan, ez da definizio itsusia.



5 *Zeri buruz hitz egiten dute zuen abestiek?* Abestiak guk sortutakoak dira eta bizitzari buruz hitz egiten dute. Eta bizitzan, edozein gauza gerta daiteke!

6 *Non entseatzten duzue?* Eibar-ko lokaletan, Legarren, asteburuetan.

7 *Noiz eta non eman zenuten azken kontzertua eta noiz eta non emango duzue hurrengoa?* Azkena Ermuko VertigoRocken eman genuen. Hurrengoa, berriz, ez daukagu oraindik lotuta, beharbada, Bilboko jaietan.

8 *Diskorik kaleratu duzue?* Bai, 1999an maketa bat grabatu genuen eta 2001ean diskoa argitaratu genuen. Gaur egun ez daude salgai... agortu ziren-eta.

9 *Zuekin harremanetan jartzeko?* Gure mugikorretan aurkituko gaituzue: Moi, 6697232870; Javi, 686904529 eta Miguel, 669743802.



San Antonio

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
38 urte Ermua euskalduntzen



Inazio Fernández, apaiza:

“Abade izateko ibilbidea oso era naturalean egin dut”

Ekainaren 24an Bilboko Santiago elizan egingo da abade duela 42 urte jaiotako ermuar hau. Jende askorentzat aurpegi ezaguna, makina bat herri ekimenetan aritua eta tartean etxeko jatetxean 24 urtez lanean ibilia, ‘Santa Cecilia’ tabernan. Horren ostean, erlijioan aurkitu zuen babeseta eta bizitzarako bidea. 6 urteko formazioa jaso ostean, bere asmoak egia bihurtzea lortu berri du.

- *Makina bat elkarteko kide izana zara...*

Soldaduska egin ostean, gurasoen jate txean lanean hasi nintzen eta ondoren, lehenagotik zale nintzenez, xake taldean eman nuen izena. Makina bat une eder bizi izan nituen han. Horrez gain, euskara ikasteko premia sumatu eta AEKn bost urte pasa nituen. Odol emalleen Elkartean ere beste bost urte, Santixauetan Afaltzaindiako kide izan nintzen eta Ermuko elizan hasi nintzen gero.

- *Noiz izan zen hori?*

Betidanik izan naiz fededuna, baina elizara joateko tartea soilik udaran hartzen nuen, Allarizera oporretan joaten nintzenean. Aste Santuetan ere, Arantzazun, Ziortzan edo Loiolan egiten nituen egonaldi batzuk. Eroso sentitzen nintzela ohartu nintzen, gustuko nuela mundu hori. Ermuan ez nuen denborarik lanaren erruz, baina gurasoek jate txean igandez ixtea erabaki zutenean, Ermuko elizara joaten hasi nintzen, eukaristiara.

- *Iñaki Sánchez orduko abadeak asko lagundu zizun...*

Oso garrantzitsua izan da Iñaki nire ibilbidean. Pixkanaka elizan barneratzen hasi nintzen. Mezan lagundu, irakurgaiak egin, katekesi irakasle....



- *Zelan erabaki zenuen abade izateko pausua ematea?*

Iñakik berak esan zidan abade ona izan nintekeela, baina hasiera batean ez nion garrantzirik eman. Handik gutxira, gurasoek erretiroa hartu zuten, jate txea itxi genuen eta ni ere beste lan batean hasi nintzen. 35 urte nituen. Iñakik esandakoari buelta batzuk eman ostean, gogoeta sakona, 'discernimiento' deitzen zaiona egitea erabaki nuen. Nire bizimoduarekin zer egin, benetan zer nahi nuen erabakitzeko eta horrela erabaki nuen abade izatea. Isaac Totorikak ere

asko lagundu zidala aipatu nahi nuke.

- *Ingurukoek nola hartu zuten zure erabakia?*

Gurasoek hasiera batean ez zuten nire erabakia ondo ulertu, baina berehala babestu ninduten. Gurasoek ziztuzten planak eta nireak bateragarriak ez izan arren, denok geneukan helburu bera: ni zoriontsu izatea eta hala izan zen.

- *Seminarioa joan zinen ondoren...*

Bilboko seminarioan hasi nintzen. Seminarioan egoteaz gain, Deustuko Unibertsitatean Teologia ikasketak egin ditut azken bost urteetan. Filosofia zko testu asko irakurtzea egokitu zait.

- *Tarte honetan guztian zalantzak sortu zaizkizu?*

Bizitzan erabakiak hartzea tokatzen zaigu eta nik hala egin nuen. Sarritan

gauzak ez egitera garamatza beldurrak. Nik argi neukan atzera egiteko aukera ere bazegoela, baina egunero hartutako erabakia sendotuz joan naiz. Abade izateko ibilbidea oso era naturalean egin dut.

- *Zenbat gazte zaudete gaur egun seminarioan?*

Momentu honetan 9 lagun gaude. Ni hasi nintzenean 5 besterik ez zeuden.

- *Euskal Herritik kanpo ere ibili zara...*

Angolan, Polonian, Erroman eta Ingalaterran ere ibili naiz. Oso esperientzia bereziak bizi izan ditut eta asko ikasten da. Polonian egon ginenean adibidez, Auschwitzten egon ginen. Oso leku berezia iruditu zitzaidan. Paretek ere hitz egiten dutela dirudi.

- *Aita Santua ere hurbiletik ezagutzeko aukera izan duzu...*

“Atzera egiteko aukera ere bazegoen, baina hartutako erabakia sendotuz joan naiz”

Caperos

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Udako atsedeen leku izaten duen Castel Gandolfora (Erroma hegoaldean) joan ginen bisitan eta oso hurbiltetik ikusteko aukera izan nuen.

- Gaur eguneko gizartea nola sumatzen duzu erlijio kontuetan?

Uste baino fededun

gehiago dago, nire ustez. Fededuna zarela jendaurrean ez du edonork onartzen, baina banaka-banaka jendearekin egoten zaren konturatzen zara badagoela hor zerbait gordea.

- Jende asko hurbiltzen zaizu?

“Jendeak uste baino fededun gehiago daudela esango nuke”

Bai. Arazo asko dago gizartean eta denetariko arazoekin hurbiltzen zaizkit. Sarritan psikologo lana egitea ere egokitzen zait.

- Euskaraz ederki moldatzen zara. Abade gisa eus-

karaz arituko zara?

Durangon eta Abadiñon egon nintzenean dezente erabiltzen nuen. Leioan oso gutxi erabiltzen dut. Pixkanaka erabili ezean, erraztasuna galtzeko beldurra daukat.

- Ekainaren 24an egingo zara abade. Nora joango zara orduan?

Teologia ikasketak amaitu ostean, azken urte honetan diakono gisa eman dut. Iaz Durangon eta Abadiñon eta aurten Leioan egon naiz. Aurrerantzean ere Leioan egongo naiz abade gisa.

- Ermu etortzen jarraituko duzu?

Uztailaren 1ean emango dut meza Ermuan. Gainera arrebak eta anaia hemen ditut. Gurasoak Galizian bizi arren, urtean zehar Ermura sarri etortzen dira bisitan. Ni igande eguerditan etortzen naiz, senideekin egon eta hurrengo egunean bueltatzen naiz Leioara.

Asier Ibaibarriaga



MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefona 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)

Ume eta gazteentzako oinetakoak

Arinka

Orbe Kardinalaren plaza 8 · ERMUA
(frontoiaren ondoan) 943 17 41 26

ONTINDIA HARATEGIA

Etxean egindako odoloste eta txorizoak

Kantabria zeharbidea 1
48260 - ERMUA

Tel. 943 10 85 44
Mug. 678 64 85 41

·Teak eta kafeak.
·Belgiako txokolata.
·Eguneko tea dastagarri
·Osagarriak: teontziak, katiluak, infusoreak....

Oparitzeko neurria egindako poltsak!

Probaleku 4 bis, 943 03 15 81

Iraltz Udabe, Bizkaiko Euskal Kantu Txapelketan saritua: “Txapelketan etxien lez sentidu nintzen”

- *Jakin dogu Bizkaiko Euskal Kantu Txapelketan parte hartu dozule. Zer dala eta?*

Bigiran ezagututeko lagun on batek, aurreko edizinetan ibilittekuak, animatu ninduen.

- *Zer modalitatetan aritu zara?*

Hiru modalitateen parte hartu dot. Batetik, bakarkakuen; bestetik bikotekakuen, Irantzu Rojo lagunakin eta azkenik, taldeko modalitateen, Irantzu eta haren ahizpa Iraiakin.

- *Zer kantu abestu zenuzun?*

Bakarka, Xabier Leteren ‘Habanera’ eta euskaratutako ‘Piano gizona’ kantatu nituen. Bikoteka, ‘Ikustezina’ kantue eta Irantzuk konposatutako ‘Kea’. Taldeka berriz, Su Ta Gar taldearen ‘Itxaropena’ eta ‘Xalbadorren Heriotza’ kantu herrikoia.

- *Eta zelan geratu zinen?*

Finalera heldute, bakarka, 4. sarixe lortu neban. Bikoteka, 3.ena. Eta taldeka 3.en geratu ginen. Emaitzekin pozik!

- *Nun eta noz izen zan?*

Finala, ekainan 3en, Bilbo BBK aretuen.

- *Lehiaketan parte hartzean handixe izen da zuretzat?*

Egixe esan, ez da gogorra izen. Alde batetik, kantuek



niretzako ezagunek ziren, eta bestetik, Irantzu eta Iraia ezagutzeran eta beraiekin abestera ohitute egokieran, entsaio gitxi batzuekin nahikue izen da.

- *Zelan baloratzen dozu biziteko esperientziak?*

Esperientzia oso ona; txapelketie oso hurbilekue da. Parte hartzaile asko ezagunek nituen eta publiko handirik ez egotiek, etxien lez sentiarazi ninduen.

- *Nundik datortzu kantuzko afizino hori?*

Txikittetik musika munduen aritu izen naz: abesbatza, solfeo eta trikitixan.

Gaztetan hasitekue jarraitu besterik ez dot egin. Jasokunde abesbatzien hasi nintzen 6-7 urterekin. Gerotxua 12-13 urterekin, ETBko ‘Show BT’ programan parte hartu neban. Ondoren, abots aldaketa zala eta, Jasokunde laga eta 16 urterekin edo, Mendibil abesbatzien hasi nintzen. Orduen, Iratxeren birtatez, Durangoko Bogoroditsie abesbatzeko zuzendarixe ezagutu eta bertan hasi nintzen. Unibertsitate garaixen Zumaiko San Pedro abesbatzien eta Errenteriako Landarbaso aritu nintzen. Azken hau aukera handiko

abesbatza da, ‘Txinako Abesbatzen Joku Olinpikuetan’ eta Tolosako Lehiaketan parte hartu dot eurekin. Honen danan tartien, telebistako ‘Bigira’ eta ‘Oh Happy Day’ n aritu nintzen.

- *Aurrera begire zer asmo daukezu?*

Bogoroditsie eta Landarbaso abesten jarraitzen dot. Azken horrekin, Austriako Spittaleko Txapelketara juktue naz uztailien. Horrez gain, Irantzuekin, geure kabuz, grabazinoen bat edo beste egitie be pentsau dogu; baina hori, denporiek esango dau!

IZOTZ
IZOZTUAK



ERMUA
Merkatua
54-55 postuak
943174101

ARRASATE
Merkatua
943770598

ELUR
ESTETIKA-EDERGINTZA



- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegiarako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

Aldapa 1 **943 17 60 52**

ILEAPAINDEGIA

Izaskun

Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90

ILEAPAINDEGIA

'BIHARKO IZARRAK' FINALA

Pasa dan ekainan 8xen jokatu zan Biharko Izarrak pelota txapelketa finala. Agirre gailendu jakon 22 eta 17 Iribarriri lau t'erdiko finalien.



Bikoteka Elezkano - Landaburu 21 / Santos - Tolosa 22 izen zan emaitza. Otsailetik jokutzen izen da txapelketa hau eguen iluntzi eta zapatu arratsaldetan. 24 pilotarik parte hartu dabe bertan eta bikotekidiek aldatuz, danek danen kontra jokature juen da sailkapena osatzen. Aurten partaidien artien mallabitarrik egon ez arren, aipatzekue da, Tolosa txapeldunaren ama, Malle baserrikue dala.

MALLABITARRAK EMAKUMIEN TRIATLOIAN

Leire Uribelarrea eta Itsaso Praderak datorren ekainan 23en Donostian jokatu dan Emakumearen VI Triatloian parte hartuko dabe. Club Atletico San Sebastianek antolatzen dau proba hau eta arratsaldeko 3retan hasiko da Kontxako hondartzan. 70 minutuen barruen igeri, bizikleta eta korrikako zatixek osatu beharko dabez. Zorte on neskok!

ETXEBIZITZEN INGURUKO INKESTA

Etxebizitza bat erosi edo alokatzeko asmotan dauezan herritarrentzat inkestie kaleratu dau Udalak. Kultur Etxe edo Udaletxien jaso eta uztaillaren 6ra arte entregatu ahal izengo da.

DAMUDOT BASTIDA TABERNAN

Ekainaren 29xen, iluntziko 10ak aldera, Damudot taldiek joko dau Bastida tabernan. Mallabi eta inguruko musikariek osatzen dabe taldie, eta kontzertu hau euren azken diskue 'Heriotza da bakea dakarren bakarra' herrixen aurkezteko aprobeztatuko dabe.

SAN JUAN JAIXEK GOITANEkainak 22, barixekue

22:00etan, afarixe. Bertsolarixek: Beñat Ugartetxea eta Etxahun Lekue. Trikitilarixek: Iraitz eta Jokin Udabe.

Ekainak 23, zapatue

17:30ean, Gorriti bere aberiekin. Ondoren txinga erute lehiaketa.

22:00etatik aurrera, tortila txapelketa eta karta jokuek. Gauerdixen, San Juan suek eta ondoren txokolatadie.

Ekainak 24 domekie

11:00etan, mezie. Gazte Alai dantza taldie. Ardi txakur erakustaldixe eta segaz bedar ebate lehiaketie.

16:30ean, umientzako parkie. Ostien, txokolatada eta errifenzoketa.

GARAZI MUGARZA PROSAN GARAILE

Garazi idazle mallabitarra sariduna izen da Julene Azpeitia eta Urruzono literatur lehiaketetan. Bixetan, prosa modalitaten parte hartu dau. Lehenenguen



'Egunak agertu zitzaizkidanean' aurkeztu eban. Bigarrenien berriz, 'Izenburu bat zapi bateko bizimodu klasikoen nahaste batentzat'. Lemoizko aterpetxerako, beste irabazleekin batera 4 eguneko egonaldixe eta 200 euro izen die sarixok. Liburu bana argitaratuko dabe antolatzailliek sarituek izen dien lanekin. Zorionak, Garazi!

Igone Amesti eta Ibaia Azagirre

MUGA **KIROLAK**

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak,
telebistak, bideoak,
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

MALLABIKO Herriko taberna

Eguneko platera (3€),
menua, bokatak,
plater konbinatuak,
pintxoak, kazolak,
arraina eta txuleta
parrillan (enkarguz)...

EUSKAL PRESO
ETA IHESLARIA

ETXERA

943 174 952
(asteartetan itxita)

Pub Dakota

Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

EGANA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

Rock & Road taldea:

“Denboraz larri baina gogoz, primeran gabiltza”

Maialen Agirregomezkorta (saxoa), Asier Cascán (gitarra), Danel Ferreño (bateria), Mikel Sánchez (gitarra eta ahotsa) eta Axier Uranga (baxua) ermuarrek Rock & Road taldea osatzen dute. 18 urtetik 21 urtera bitarteko gazte hauek duela gutxi elkartu ziren eta dagoeneko lehen diskoa kalean dute.

- **Nola sortu zen Rock & Road taldea?**

Duela 3 bat urte sortu genuen. Mikel gitarra jotzen hasi zen eta Danelek bateria jotzen zuen musika eskolan. Koadrila berekoak dira eta arratsalde batean, aspertuta zeuden lokalean eta zerbait pentsatzen hasi ziren. Axierrek baxua jotzen zuen Musical Araban. Taldean jotzeko bere burua eskaini eta hurrengo egunean deitu genion. Beste gitarra bat sartzeko asmoa genuen eta lagun bati eskaini genion, baina txarto zebilen denbora aldetik eta ezezkoa eman zigun. Horregatik Asierri eskaini genion, txikitatik ezagutzen dugu, musika eskolan ibilitakoa da eta bera hasi zen gurekin.

- **Eta nola sartu zen Maialen?**

Fitoren bertsiotzuk egiteko asmoa genuen eta Maialenek saxoa jotzen duenez, berarengana jo genuen laguntza eske, saxofoiarekin abesti batzuei kolorea ematea nahi genuen-eta. Azkenean gurekin geratu da.

- **Nondik dator zuen izena?**

Axierri bururatu zitzaion. Gure asmoa herriz herri ibiltzea da jotzen, eta bidean denbora asko pasatuko dugu. Hortik dator ‘road’ (bidea) eta guk Rock & Roll-a jotzen dugunez... Erregistratuta zegoen edo ez begiratu genuen, baina azkenean horrekin aurrera egitea erabaki genuen.

- **Egun batetik bestera ekin zenioten jotzeari?**

Bai, bat-bateko kontua izan zen. Entseatzeko lokalekin ere sekulako zortea izan genuen. Betitxartoko lokaletara galdetzeraz joan ginen eta beste talde batzuekin konpartitutako lokala topatu genuen.

- **Inguruko laguntza izan duzue?**

Alboka Musika Eskolako irakasleek asko lagundu digute eta Musical Arabako Asier irakasleak ere gitarra-ekin asko lagundu digu. Gainera, batzuen kasuan, gurasoak ezinbestekoak izan dira musikan gure bidea egiteko, musika tresnak erosi dizkigutelako.

- **Nola uztartzen duzue musika ikasketekin?**



Ahal dugun moduan, baina oso zaila da. Azterketa garaian gaude eta ez da erreza denok elkartzea. Elkarrizketa hau egiteko ere zoratu egin gara! Axierrek ingeniari-tza ikasten du Eibarren, Asierrek haur-hezkuntza, Maialenek DBHko 2. maila bukatu du eta Danelek musika irakasle izateko ikasten dihardu. Bakoitzak bere ordutegiak ditu eta azkenaldian entseatzeko ere arazok izan ditugu.

- **Noiz entseatzeko duzue?**

Ostiral edo larunbat arratsaldetan biltzen gara, baina kontzertuak baditugu, gaue-tan ere entseatzeko dugu.

- **Zenbat kontzertu eman duzue dagoeneko?**

Ermuan 3 bider jo dugu. Lehenengo kontzertua Santi-

xauetan eman genuen Val-despinan, eta horren ostean Londonen eta Lurpen jo dugu. Azken kontzertua Elgoibarko gaztetxean izan dugu eta guretzat onena izan da. Talde moduan heldutasuna igarri dugu eta diskoa jada kalean egoteak ere lagundu digu. Leku aldetik ere, inoiz baino leku zabalagoa izan dugu, eta gaztetxeko ekipak erabili ditugu, guk, musikariok, jotzen dugun musika entzun ahal izateko. Normalean oso deseroso jotzen dugu, gure entzuleek musika entzun dezaten ipintzen dugulako ekipoa, eta guk ez dugu entzuten, bateria joleak esaterako, ez du ezer entzuten.

- **Zuek bilatzen dituzue zuen kontzertuak?**

mari asun
LORADENDA
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

ALBOKA
MUSIKA
ESKOLA
Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Bai, nahiz eta Ermuan eskaintzak egin izan dizkiguten, 'Gaua zabalik' en jotzeko, besteak beste. Hala ere, guk Ermutik irten nahi dugu. Hemen jotzen dugunean jende bera etortzen da gure kontzertuetara eta azkenen nekatu egingo dira! Gure lagunak etortzen dira eta kanpoko jendeak gu entzutea nahi dugu.

- Datozen hilabeteetarako baduzue kontzerturik lotuta?

Ez. Orain uda dator eta bakoitzak bere planak ditu. Datorren urtean, berriz, oporrak adostu beharko ditugu, kontzertuak emateko garai oso aproposa da uda eta ezin dugu aukera hori galdu.

- Zer dela eta ateratu duzue diskoa?

Martxoan atera genuen, gure burua aurkeztu ahal izateko-edo. Kontzertu bila zaudenean, ezin diozu jendea irten esan myspace edo youtuben sartu eta zure musika entzuteko; baietz esan, baina inork ez duela egiten. Diskoa eramatean berriz, ipini eta entzun besterik ez dute egin behar. Hala ere, jendeak ez du erantzuten. Durangon, Zornotzan, Eibarren... leku askotan utzi dugu diskoa, baina ez digu inork deitzen ez baietz ez ezetza emateko. Lehiaketetan parte hartzeko ere izena eman dugu, baina ez da gauza handirik irtetzen.

- Hala eta guztiz ere, animoz ondo zaudete?

Bai, denboraz larri baina animoz oso ondo!

"Astebururo jotzea da gure helburua, izerditu eta jendeak gurekin ondo pasatzea"

- Grabazioa luzea izan zen?

Asteburu batean egin genuen, estudioaren alokairua dirutza delako. Pare bat egunetan joan eta ahalik eta hoberen egitea izan zen gure asmoa.

- Zenbat disko kaleratu dituzue?

500 eta ia gehienak saldu ditugu. Gainera, materiala erosteko dirutxo atera dugu, musika kontuak oso garestiak baitira.

- Denak euskaldunak izanda, zer dela eta abesten duzue gaztekeraz?

Mikelek idazten zituen gure kantak eta ez dauka euskaraz idazteko erraztasunik. Orain Maialenek ere abestiak sortzen ditu, euskaraz, eta kontzertuetan abesti batzuk euskaraz jotzen ditugu. Diskoan ere, euskarazko abesti bat sartzeak ginen, baina ez genuen ondo landuta oraindik. Gainera, musikari ekin genion ez genuen neurtu noraino helduko ginen, zerbait egitearren hasi baikin, orain gehiago erreparatu diogu.

- Zein da zuen helburua?

Jotzea eta ondo pasatzea. Euskal Herrian jotzea da gure hasierako asmoa, kanpokoan ere ahal bada, baina hasieran behintzat Euskal Herrian, astebururo. Betitxartoko lokaletan jotzearen entseatzuten taldeak daude, noizbehinka zerbait egitearren, baina guk ez dugu hori nahi, guk jo nahi dugu, izerditu eta jendeak gurekin ondo pasatzea. Horrez gain, hobetzea, beti dago zer hobetu... Orain gure diskoari begiratzen diogunean, askoz hobeto egin genezakeela ikusten dugu.

- Zuekin harremanetan jarri nahi dutenek nora jo behar dute?

Gure abestiak Interneten entzun eta deskargatzeko aukera dago (www.myspace.com/rock.and.road). Twenty eta Twitter ere badaukagu. Diskoak Lurpen eta Musical Araban daude salgai eta gure telefonoa 696326447 da. Ea jendea animatzen den!

Dorleta Vidal



san pelayo
clínica dental horts klinika

San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04

Quetzal berria!!

[arropa, bitxiak, opariak...]

ekainetik aurrera
Eibarren ere

Goienkale, 9 • 48260 ERMUA 943170065
Zuloagatarren, 7 • 20600 EIBAR 943531500

ZUTIK
garagardotegia

Ogitartekoak,
hanburgesak,
plater konbinatuak,
kaxolak...

konpainiarik onenean!!

Zubiaurre 21 - arkupeetan
ERMUA • 94317 39 78

ETXERA
eramateko
616 80 22 81

Zure publizitatea...

drogeteniturri
aldizkarian

943179350
688 632876
Erdikokale 2, 1
drogeten@gmail.com

J. LUCAS

PINTURA EN GENERAL

630 22 51 36 / ermua@hotmail.es

- Er muko
- Merkatarien
- Elkarteko
- kidea.
- 3 hilean
- ordaindu
- interes barik

**ERROTABARRI
ESKUBALOI TALDEAK
OHIKO ASANBLADA
EGINGO DU**

Uztailaren 5ean, osteguna, Errotabarri Eskubaloi taldeak urteko batzar orokorra egingo du Lobianon. Bertan denboraldiko balantze ekonomikoa eta kirol balantzea jorratuko dituzte, besteak beste. Taldearen azken emaitzei dagokienez, Errotabarriko jubenilak bigarren postuan geratu dira aurtengo Bizkaiko Kopan, Ath. Basauriren kontra 24 - 25 galdu eta gero.

**URKO BTT MARTXA
UZTAILAREN 1EAN
IZANGO DA**

Debabarreneko BTT martxaren IV. edizioan parte hartu nahi dutenek ekainaren 26a baino lehen eman beharko dute izena www.debabarrenaturismo.com web atarian. Bi ibilbide egongo dira, bata laburra (25 km) eta bestea luzea (45 km), baina irteera ordua eta lekua bera izango da bientzako: 9.00etan Elgoibarko Mintxeta Kirolgunean. Debabarrenetik diotez, martxa herrikoia da, ez lehiakorra, eta 400 partaide inguru biltzea aurreikusten dute. Parte hartzen duten guztien artean sari ugari zozketatuko dira, tartean bazkariak, afariak eta egonaldiak hotel eta landaturismoetan. Lasterketaren helburua bikoitza da: alde batetik mendi bizikletaz gozatzea eta bestetik Debabarreneko BTT Zentroak dituen ibilbideak ezagutzera ematea.

Leire Gorritxategik urrezko domina irabazi du

Atletismoko Erkidegoen arteko Espainiako Txapelketa burutu zen Zaragozan ekainaren hasieran eta bertan Ermuko hainbat kirolari hartu zuten parte. Leire Gorritxategi 500 gramoko jabalina jaurtiketan aritu zen eta lehen saiakeran 42.22 metroko jaurtiketa egin zuen. Beste 3 jaurtiketa egin zituen (41.27 metrokoa bat eta 39 metrokoak beste biak), baina lehen jaurtiketari esker urrezko domina lortu zuen, bigarren sailkatuari 9 metroko aldea atera eta gero. Irene Pérezek altuera jautsian hartu zuen parte eta, haizearen eraginez hasiera kaskarra izan zuen arren, 1.64 metroko marka gainditu zuen. Pérezek zilarrezko domina lortu zuen, Valentziako Carolina Bonattiren atzetik. Ainhoa Izagirre, berriz, mailu jaurtiketan aritu zen eta 3 kiloko mailuarekin 28.98 metroko jaurtiketa egin zuen. Izagirrek bere marka pertsonala metro batean hobetu zuen eta txapelketa 10. postuan bukatu zuen.

**Titanic, Secretos eta Giroa tabernek saria jaso dute**

Sirimiri, Lurpe, Paddock, Txalaparta, Titanic, Secretos, Yomy eta Beer Station tabernak heldu dira 'Il. Gin Tonic' txapelketako finalera eta guztien artean Titanic tabernako Jesusek lortu du saria 'Gin Tonic original' kategorian eta Secretoseko Rubenek 'Gin Tonic berezietan'. Horrez gain, ohikoa den pintxo lehiaketa burutu da eta aurten inoiz baino taberna gehiagok hartu du parte: 31 guztira. Epaimahaiaren arabera, Giroa tabernako 'Natura' pintxoia izan da gozoena (arrautza, patata eta porruarekin egina) eta horrek 150 euroko erosketa-txekea eta diploma jaso ditu. Bigarren saria, Titanic tabernarentzako izan da, 'Pysbe' pintxoia egiteagatik (bakailoa, patata eta barazkiak) eta horrek 50 euroko txekea eta diploma jaso ditu.

**600 lagunek baino gehiagok hartu du parte
XVIII. Ermua Hiria Literatur Lehiaketan**

Aurtengo Ermua Hiria Literatur Lehiaketaren datuak eta irabazleak jakinarazi ditu Ermuko Udal Liburutegiak eta irabazleen artean ez dago ermuarrik. Euskarazko narratibian Bergarako Elene Etxanizek irabazi du, 'Mosku' lanarekin eta olerkietan, berriz, Zumaiako Jon Joseba Aizpuruak lortu du saria, 'Gauaren babesean' olerkiarekin. Madrilgo Luis Felipe Blascok irabazi du gaztelerezko narratibian ('La emoción del vino') eta Puerto Realeko Antonio Gilek olerkigintzan jaso du saria ('Fotogramas'). Irabazle bakoitzak 400 euroko saria lortu du eta euren lanak irakurri nahi dituenak Ermuko Udaleko webgunera jo dezake, Liburutegiaren atalean. Liburutegiko arduradunek jakinari dutenez, 42 lan aurkeztu dira euskaraz eta 578 gaztelerez. Udal Euskaltegiko irakasle den Leire Narbaiza, Udal Euskara Zerbitzuko teknikari Fernando Aranberri eta Udal Liburuzain eta Arduradun Sara Gago izan dira euskarazko epaileak. Gaztelaniazkoan, berriz, Javier Araiztegi, Liliana Caballón, Ruth Díez, Yolanda Palmero, Patxi López eta Liburutegiko langile diren Ángela Rabadán, José Miguel Fernández, Sara Gago, Óscar Gómez eta Isabel González.

Proba-Leku
Neopaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

T XALAPARTA
ABERNA

**Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

**NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA**

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

Ermuarrak 'Hiru Handiak' mendi lasterketan



Ermuko kirolariak izan ziren ekainaren 2an burutu zen Gorbea, Anboto eta Aizkorri mendiak zeharkatzen dituen 'Hiru Handiak' lasterketan. Parte hartzaileek 100 kilometroko ibilbidea egin behar zuten. Nesken kategorian, Artarrai Mendi Taldeko kidea den Eva Garcia ermuarra 6. postuan iritsi zen helmugara (16:29:59). Castilla-Leongo kidea den Isabel Santiago, berriz, 12. sailkatu zen (19:32:08). Mutilen artean, berriz, 16

ermuar egon ziren: Roberto Rekalde (66. postuan, 15:25:16), Iker Gil (107.), David López (108.), Jesús Alonso (139.), Juan Fernando Saéz (149.), Javier Alberdi (166.), Aitor Izagirre (210.), Enrique Zafra (512.), José Jesús Pascual (554.), Pablo Garciandia (674), Iker Araiztegi (679.) eta Jon Arana (795.). Beste lau ermuarrek, berriz, ezin izan zuten lasterketa bukatu.

30 lagun bildu zituen San Martin laguntzaileen txangoak



San Martin azoka egunean antolaketan parte hartzen dutenei euren laguntza eskertzeko txangoa antolatu zuen Euskal Birusak ekainaren 9an. 31 lagunek hartu zuten parte irteera horretan, tartean talogileek eta Euskal Birusa elkarteak kide eta lagunek. Goizean Gernikako Euskal Herria Museoa eta Bakearen Museoa ikusi zituzten, hala nola Batzar Etxea. Korteziubiko 'Marko Pollo' garagardotegian bapoz bazkaldu eta gero, kantuan eta dantzaz egin zuten bertara hurbildu ziren Ane Miren Mirandona eta Edorta

Unamunorekin batera 18.30ak arte. Eskerririk asko zuen laguntzagatik!

San Juan sua prest dago



Urtero lez, San Juan sua egingo du Euskal Birusa elkarteak ekainaren 23an, 22.00etan hasita, Orbe Kardinalaren plazan. Ekitaldian Txindurri Dantza eta Txistu taldeak eta Pispillu abesbatzak parte hartuko dute. Suaz gain, dantzatzeko, irrintzi lehiaketan parte hartzeko eta suzko zezena ikusteko aukera izango da. Aurreko urteetan bezala, 'azuri beltza' dantza herrikoia egingo da eta ahalik eta jende gehien plazartzeko dantza ikastaroa eskainiko du Txindurri

taldeak ekainaren 21ean, osteguna, 20.00etan Lobianon (nahi duen orok parte har dezake). Horrez gain, Euskal Birusak laguntza eskatu nahi die herritarrei, egunean bertan su ingurua zaintzeko eta umeengan arreta berezia jartzeko, istripurik gerta ez dadin, sutarra botatzen diren paperak orden eta errespetuz bota daitezzen. Gainera 10 lagun inguru beharko dira sua babesteko. Animatzen direnek bertaratzea baino ez daukate.

IRAKURRI, GOZATU ETA OPARITU EKAINAREN 30EAN BUKATUKO DA



Aurtengo 'Irakurri, Gozatu eta Oparitu' kanpaina abian da eta parte hartu nahi dutenentzako Udako Liburutegira jo beharko dute. Bertan euskarazko liburua maileguan hartu eta liburu bat erosteko deskontu-txartela jasoko dute (%25 eta %50era arteko deskontuak). Gainera, parte hartzen duten irakurleentzako artean zozketak egingo ditu Liburutegiak. Maiatzeko saritua Jone Redondo izan da eta 30 euroko deskontutxeke jaso du.

EUSKAL BIRUSEKO TXIKURIXARAKO LAGUNTZAILEAK

Euskal Birusak Santxauetan ipintzen duen txosnarako laguntzaileak behar ditu: aurreko egunetako muntaietan, txandak eginez edota patata-tortilak ekarri eman daiteke babesia. Urtero bezala, Bolintxo zaharrea jarriko da txosna eta horren helburua bikoitza da: herrian jai-giro euskalduna sortzea eta bestalde, elkartearen finantziazioan laguntzea. Interesa dutenek 688632874ra dei dezakete.

OSASUNA • ESTETIKA EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat baino gehiago!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

CITROËN AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.

Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

D. ARRAL 97 S.L.

Tfno. 943 176 075 - Fax: 943 170 892

arral@arral97.com

www.arral97.com

Ardo banatzailea:

Luis Cañas
Cantosán Verdejo
Viña 65 Verdejo
Amaren
Añada Real
Cava Oriol Rosell
Nitida
Montepinos

Txosna gunea ipintzeko baimena eman du Udalak

Orain arte ermuarrek herritik kanpo joan behar izan dute txosna giroan murgiltzeko, Ermuan ordenantza urbanistiko batek galarazten baitzuen txosna-gunea ipintzea. Baina aurten bai, Udalak baimena eman du txosna gunea ezartzeko.

Ekainaren 5ean eta 12an bilera bana egon zen Lobianon Bildu Ermuak deituta. Bertan, hamar lagun inguru batu ziren txosnak ipintzeko egin diren aurre-erapausoak eta egin beharrekoak komentatzeko.

Batzarretan esan zen moduan txosnen gunea Ermuak aspalditik duen nahia da. Horrela adierazi izan da hainbat aldiz Ermuko jai batzordean. Era berean, jai parte hartzaile, herrikoiak, parekide eta euskaldunak

aldarrikatu izan dituzte maiz txosnen alde egiten duten elkarte eta pertsonak. Horrez gain, txosnak aukera paregabea dira herrian irabazi asmorik gabeko elkarte eta taldeek dirua lortzeko beraien egitasmoak aurrera eraman ahal izateko.

Prozesuaren nondik norakoak

Bilduk ekainaren 5ean egindako batzarrean adierazi zuenez gai honen lan-keta urte hasieratik egiten

ari da Udalean. Hala ere, oraindik lan asko egitear dagoela aipatu zuen koalizioak. Lan ildo horiek bi dira: alde batetik Bilduk gobernu taldearekin aukera guztiak aztertzea eta eztabaidatzea. Bestalde, herritarrengana helduz beraiei ere parte hartze espazioak irekitzea.

Lan asko egitear badago ere, batzarrean adierazi zenez Udalak txosnen inguruko ordenantzaren beharra ikusten du. Aurten ordenantza hori aldatu ez bada ere, udalbatzak txosna gunea ezartzeko baimena eman du.

Oraingoz Santa Ana parkea izan daiteke txosna gunerako tokia. Bertan egin du Udalak simulazioa eta sei txosna kokatzeko lekua

egongo litzateke. Bilerara hurbildutakoek ondo ikusi zuten gunea bertan ezartzea, zentrotik gertu dagoen toki zabala delako eta ez dagoelako etxebizitzarik gainean. Horrez gain, trennez datorren jendeak ere eskura izango du aukera hori. Bestalde, esparru horrek aukera ematen du txosnen instalazioa eta garbiketa egiteko. Hala ere, tokiarena eztabaidarako gaia izan daiteke hurrengo urteei begira aurtengo esperientzia igaro ondoren.

Egiteko daudenak

Esperientzia berria denez gauza asko airean daude, besteak beste txosna batzordeak izango duen papeira, eragileen arteko koordinazioa nola egingo den, programa baten garapena egingo den...

Eragozpen ekonomikoez ere jardun zen bileran. Txosnak kokatzeak 4.000 euro inguruko diru kostua du eta horrek egungo egoeran izan ditzakeen zailtasun eta oztopoez ere aritu ziren.

Batzar hauek astero egingo dira, astearteetan arratsaldeko 19.00etan Lobianon. Baimena lortzea lehenengo pausoa izan da, orain egitasmo horretan parte hartuko duten elkarte, talde eta pertsonak behar dira.

Ane Saénz



Ferreteria/Burdindegi

ANBOTO

- * Burdindegia
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Giltzak / Aginte automatikoak
- * Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- * Opari artikulua

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer_anboto@hotmail.com
www.ferreterianboto.es

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

AITOR GOROSABEL

- 25 urte hasi zinetela. Nola gogoratzen dituzu hasierako garai haiek?

Oso garai politak. Orain dena uniformeagoa da. Garai koloretsuak ziren, ilusioz beterikoak, gaztetasuna, indarra... Dena dela, eta nahiz eta orain hain magikoa ez izan, gehiago baloratzen dut daukadana.

- Zeintzuk ziren zuen ereduak?

Judast Priest, Iron Maiden, Metallica, Accept... halere umetan Benito, Laboa, Xabier Lete, Pantxoa ta Peio, ondoren Itoiz, Hertzainak, punki garaia, RIP, La Polla, Barricada. 16-17 urtera arte metala ez nuen hain gertutik bizi.

- Izar handiekin ere jo duzue...

Ilusio handia sortzen dizu, baina ez dira zure kontzertuak. Presaka, betegarri zoaz askotan. Halere, Judast Priest edo Manowar-ekin eszenarioa partekatzea ederra da.

- Taldea mantentzeko sekretua?

Ezinbestekoa izan da, puzzlea pieza ezberdinekin osatu dugula. Bakoitzak bere rola eta papera ondo betetzea. Bestalde, jendearen gustuko izatea eta batez ere gazteak geureganatzeko ahalmena izaten jarraitzea.

- Etxetik datorkizu musikarako tradizioa...

Gure etxea erresonantzia kaxa bat izan da. Piano zahar bat zegoen etxean eta aitak jotzen zuen. Ni 2-3 urterekin hasi nintzen piano hori astintzen. Ikastolara



42 urte. Eibartarra jaiotzez nahiz eta azken 6 urteotan Ermuan bizi. Duela gutxi aita izan da. Su ta Gar musika taldeko kidea. 25 urteko ibilbide arrakastatsuaren aurpegi ezaguna. Ohiko izarretatik urrun, pertsona naturala, herrikoa eta jatorra. Uztailaren 14an, Santixauetako jaietan izango dugu.

flautaz gain, 'melodika' ere eramaten nuen.

- Gitarra...

Gutziz autodidakta izan naiz. 13 urterekin hasi nintzen. Grabazioak egiten nituen Norton anaia gitarrarekin eta ni baterian. Butakazen gure bateria. Lehen gitarra 17 urterekin erosi zidaten gurasoek eta oraindik gordeta daukat.

- Azken diskoko kanta batek hala dio: 'Jaio berri baten irribarre zintzoa'.

Bizi dugun kontrol sistema, bizitza kontsumista eta abar luze horren aurkako kanta da. Ahaztu egiten zaigu benetan zer garen eta

zerk balio duen. Benetan balio duena ezin da lortu teknologiarekin eta gauza materialekin. Naturak ematen diguna eskertu beharko genuke gehiago.

- Aita izateak eragin dizu...

Bai, eragin dit. Egonkortasuna eman dit. Oinarria, bizitzan helburu garrantzitsu bat zeinen alde lanean segitzeko.

- Ermuan bizi zara aspaldian...

Naiara, nire bikotea, Amañakoa da eta Ermuan pisu handiagoa zuenez, hona etorri ginen. 6 urte jada. Oso gustura, euskal zein erdal komunitatean ondo hartu nau-

te, ona besterik ez dut jaso. Errespetu handia du jendeak. Ermua oso herri kosmopolita iruditzen zait. Horrez gain, Mallabia aipatu nahi dut. Jende oso jatorra dago eta oso gustura joaten naiz hara ere.

- Musikatik kanpo zer duzu gustuko?

Surfa 33 urterekin deskubritu nuen. Zarautzen oso tratu ona jaso dut. Horrez gain billara eta baita mendia ere.

- Nola lasaitzen zara?

Ama Zarautzen bizi da eta hara joatea ihesbidea da niretzat. Ama beti ama!

- Zure buruari asko exijitzen diozu?

Sortzeko orduan adibidez, kantuak zerbait esan behar dit, bestela ezin dut aurrera egin. Sinistu egin behar dut.

- Zeintzuk dira zure inspirazio iturriak?

Edozein musika mota. Atentzioa eragiten didan edozerk. Letrei dagokienez, esperientzia, kexak, momentuko gaiak...

- Zerk jartzen zaitu sutan?

Komunikabideetan berriak nola ematen dituzten ikusteak eta horrez gain poliziak, autoritarismoak, prepotentziak, injustiziak, gizartea gorbatadun eta ez dutenen artean banatuta ikusteak...

- Kanta bat?

Queen taldearen Bohemian Rhapsody.

- Bizitzak zer irakatsi dizu?

Dena ez dela ez beltza, ezta zuria ere. Tartean badaudela kolore gehiago.

Asier Ibaibarriaga

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolaia
- * Rielak
- * Giltzak
- * Zerrailgintza
- * Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 **ERMUA**

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 **ERMUA** TEL. / FAX 943 17 42 89

Rubén eta Óscar Borrajo, 'Borrajo Racing Team'eko kideak:

“Euskadiko Txapelketan lehen hiruren artean bukatzea espero dugu”

Rubén eta Óscar Borrajo 30 eta 35 urteko bi anai dira, bata elektrizista, bestea igeltseroa. Biek zaletasun berbera dute: motoziklismoa. **Gaztetatik datorkien zaletasunari jarraiki, moto lehiaketetan parte hartzeari ekin diote.**

- **Noiz hasi zineten motor munduan?**

Rubén : 16 urterekin erosi nuen errepide lehiaketarako 125zko lehen motorra. Beranduago, hori saldu eta kroseko motorrekin hasi ginen, errepidea arriskutsua iruditzen zitzaigulako.

Óscar: Badira 5 urte 600zko motorra erosi nuela. Hori izanda, Rubén zirikatzan hasi nintzen, berak ere beste bat lortu behar zuela esanez. Eta azkenean berak 600zkoa erosi eta bi hilabetera, nik 1000zkoa erosi nuen. Horrela, apurka-apurka, afizio bezala, moto zirkuituetara joateari ekin genion, gidatzen ikasteko, zirkuitu ezberdinetan ikastaroak egiteko...

- **...eta?**

Abiadurari gustua hartu genion... Konturatu ginen,

maila aurreratuan, arinenak ginela. Zirkuituetan, maila aurreratuko lehiaketarako entrenatzera zihoan jendearekin topo egiten genuen, eta gu, gure kaleko motorrekin (zirkuituetarako zuntzekin prestatuta) horien denboretan sartzen ginen; gu ginen azkarragoak! Hori dela eta, azkenean, federatu eta lehiaketetan parte hartzeko aurretik prestatutako 1000 zko motorrak erosi genituen.

- **Lehiaketaren baten eman duzue izena?**

Bai, Iparraldeko Abiadura Lehiaketan gabilta. Honek, Euskadiko Abiadura Txapelketa eta Iparraldeko Abiadura Txapelketarako puntuzten du.

- **Nortzuk hartzen duzue parte?**

Euskadiko, Nafarroako,



Errioxako eta Aragoiko federazioko kideek parte har dezakete. Txapelketa horiez gain, seitik hiru lasterketek, Gaztela-Mantxako abiadura lehiaketarekin bat egiten dute. Bertan, Espainia osoko pilotuak batzen dira. Horietakoz batzuk, Espainiako Abiadura Lehiaketan parte hartzen dute, beraz, han dagoen maila ikaragarria da.

- **Zein kategoriatan zabilzate?**

Txapelketetan hiru kategoria daude: Amateur, 1000 Series eta 1000 Extreme. Gu, 1000 Extremen gabilta. Kategoria horretan, motorra, mekanika eta pneumatikoei dagokionez, nahi dugun bezala prestatu genezake. Amateur eta 1000 seriekoek baino denbora hobeak egi-

ten ditugu, baina kostata mantentzen gara 1000 Extremen.

- **Egindako lasterketen sailkapenetan ongi zoazte?**

Rubén : Bai, momentuz hiru lasterketa egin ditugu: Euskadiko Abiadura Txapelketako sailkapenean Óscar bigarren doa eta ni hirugarren.

Óscar: Iparraldekoan berri, ni bosgarren eta Rubén zapigarren.

- **Zein helbururekin hasi zineten lehiaketan?**

Hasieran ez genekienez txapelketetan zer topatuko genuen, ezta zelako maila egongo zen, gure helburua zen, ongi pasatzeaz gain, gure burua beste pilotu batzuen denborekin neurtzea. Baina behin lehiaketetan ha-

“Motorraren mundua garestia da, baina diruaz gain, denbora asko inbertitzen dugu”



TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)

Infreñu Taberna



Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

sita, emaitza onak atera eta gure denborak jaitea dugu helburu. Euskadiko Txapelketan lehen hiruren artean bukatzea espero dugu; Iparraldeko Txapelketan sailkapenaren erdialdean geratzearekin, pozik!

- Finantziario begira, baduzue laguntzarik?

Motorraren mundua gastu handiko zaletasuna da. Gehiengoa gure poltsikoetatik finantzatutakoa da. Diruaz gain, denbora asko inbertitzen dugu; izan ere, guk egiten ditugu gestio guztiak: izen emate eta paper kontuak, motorrak eraman eta ekarri, zirkuituetarako motorra prestatu, materiala... Krisia dela-eta, finantziario iturriak bilatzeko ez da sasoirik onena. Hala ere, ekonomikoki lagundu gaituzten babesle batzuk lortu ditugu: Scorpio eta Sirimiri tabernak, Pub Montecasino, Probaleku autoeskola, Coello eta Dominguez Mapfre aseguruak, Maxel, Serkide eta Tesouro Zeramikak. Barola Karroze-

riak motorrak margotzen dizkigu. Laguntza mekanikoari eta lehiaketetarako materialari dagokionez, Autoboxek laguntzen gaitu.

- Diru kontuek mundu honetan ere eragina dute?

Bai, zalantzarik gabe. Ekarpene ekonomikoak lasterketetako emaitzarekin lotuta doaz. Gero eta material hobeak, gero eta emaitza edo denbora hobeak. Pilotuaren baldintzez gain, noski.

- Aurrera begira, datorren urterako, zer asmo duzue?

Aurten asko ikasten gabiltza. Gure akatsetatik ikasi eta hobetzeko asmoarekin, datorren urtean 1000 Series kategorian parte hartu eta irabaztea dugu helburu. Podiumera igo eta txanpan botilari kortxoa kentzeko lehiatuko gara! Honetaz gain, beste zirkuitu batzuetan hainbat lasterketa egiteko asmoa dugu, ongi entrenatu eta Espainiako Abiadura Txapelketako lasterketaren baten parte hartzeko.

“Azkenaldian oso parekatuta gabiltza. Lehia sana da gurea, elkarri laguntzen diogu”

- Zenbatero entrenatzen duzue? Non?

Hilean behin joaten saiatzen gara, baina askotan lanagatik edo diruagatik ez da posible. Zirkuitu ezberdinetan entrenatzen gara: Los Arcos, Alcañiz, Alcarrás, Albacete, Pau...

- Ermuarren artean jarraitailerik baduzue?

Bai, lagun eta ezagun taldea dugu inguruan. Gutaz arduratzeaz gain, Los Arcos eta Alcañizeko lasterketarik ikustera etorri ziren.

- Zuen artean haserretik baduzue?

Ba bai... Rubén : Zirkuitu munduan hasi ginenean, Óscarrek ni baino esperientzia gehiago eta motor hobeak zuenez, beti egon izan da nire aurretik.

Óscar: Baina azkenaldian, oso parekatuta gabiltza. Zirkuituren batean aurreratu ere egin nau! Rubén : Noizbait bere aurretik geratzea espero dut, nahiz eta bera osoa azkar ibili! (barreak).

Biak: Lehia sana da gurea. Elkarri laguntzen diogu!
- Familia, bikote, lagunak... zer esaten dizute?

Rubén : Nire bikotea ere moto zalea da, beraz zentzu horretan, zorteduna naiz. Entrenamendu eta lasterketa guztietara etortzen da. Animoak emateaz gain, ahal duen guztian laguntzen digu: boxean, irteerako parri-lan...

Óscar: nire bikoteak begirune handia dio motor munduari; azkenaldian bi lasterketara etorri da, eta apurka-apurka zaletzen hasia da.

Biak: Eskertzekoa da bikoteek ematen diguten laguntasun guztia! Gurasoei dagokienez, zoratuta gaudela esaten digute; kontu handiz ibiltzeko eta hoberenak irabazi dezala! (barreak).

- Noiz izango duzue hurrengo lasterketa?

Ekainaren 30ean Nafarroako Zirkuituan egongo gara, Los Arcosen. Uztailaren 22an eta azaroaren 4an Aragoiko Motorland-era joango gara, Alcañizera. Lasterketa horien berri gure blogean emango dugu: <http://borrajoracingteam.blogspot.com.es/>.

Igone Amesti



Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

Giza Eskubideak pertsona guztiontzat

Langabezia gero eta kezka-garriagoa da. Etengabeko murrizketa iragarpenak osasunean, hezkuntzan, pentsioetan, menpekotasuna duten pertsonentzako laguntzetan eta abarretan. Lan erreforma, etxetik kaleratzeak, Gobernu krisiaren aitzakiarekin hartzen ari den neurri guztiek eragiten dute etorkizunari beldurrez begira diezaiozun, gure etorkizunari eta gure seme-alabenari ere.

Botere politiko eta ekonomiko-tik interes handia dago egoera honen errua etorkinei botatzeko, horrela, bankuei eta finantza-kapitalari, krisi honen eragileei alegia, begira ez diezaiegun. Agintzen dutenek ondo dakite sarritan gutxiago kostatzen zai-gula arazoan errua ahulari botatzea boteretsuari aurre egitea baino. Gustatuko litzaieke langa-

beziaren errua langile etorkinei botatzea, ekonomia maneiatzen eta higiezin burbuila sortu zutenei bota beharrean. Edo pentsatzea osasun-zerbitzuetan dagoen gero eta saturazio handiagoa etorkinen ondorio dela, murrizketez gogoratu beharrean. Era berean, interesa dute sinets dezagun nahikoa gizarte-laguntzarik ez dagoela etorkinek eramatzen dutelako guztia, bankuei milioika eta milioika euro etengabe ematen 3 urte daramatela onartu beharrean.

Zentzu honetan, sinestarazi nahi digute etorkinei eskubideak kenduz diru gehiago egongo dela besteontzat. Horrela, Gobernu espainiarrak etorkinen bizi-baldintzak gogortzeari ekin dio buru-belarri. Azken eraso izan da, eta esan genezake izugarriena, gobernuak buruturiko 'paperik



*Juantxo Diez
eta Ermuko Nazioarteko
Elkartasuna eta
Lankidetzaren Kontseilua*

gabeko' etorkinen osasun-laguntza jasotzeko eskubidea ukatzea.

Etorkinak errudun moduan erabiltzea 'planteamendu tranpa' bat da: gobernuak ezartzen dituzten krisirako konponbideak herritarren gerrikoak estutzean dute oinarria, bankuen kutxa gotorrak betetzen dituzten bitartean. Eraso horien konponbidea ez da etorriko ahulenei bizkarreratzetik. Alderantziz, konponbidea etorriko da murrizketa hauek guztiak pairatzen ditugun pertsona guztiak, etorkinak edo bertakoak, erantzun irmoa emateko gai izatetik.

Sinestarazi nahi digute etorkinei eskubideak kenduz gero diru gehiago egongo dela besteontzat

**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es



Harategia

M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
*Geure Baserrian
Hazitako Txalak*
GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA
Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

PRO

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA
IZOZTUAK

**ESKAINITZA BEREZIA
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

ETXEBIZITZA

Mallabian pisua salgai: 3 logela, balkoi 2 eta trastelekua.
© 617 63 78 86


Babes Ofizialeko apartamentua salgai Ermuan. 42 m², sukaldea guztiz ekipatuta, marradun garajea eta 13 m²ko trastelekua.
© 630 33 19 46

LANA

Neska ardura-tsua eskaintzen da umeak zaintzeko. Uztaila eta abuztuan Ermuan.
© 664 62 68 74



Maiatzaren 31n
Zorionak Olatz, super txokolatera, 4.urtebetetzean. Zure familiaren partez!!



Ekainaren 17an
Zorionak Aner zure guraso, aitona-amona eta izeba-osaben partez, Irama eta Aneren partez batez ere.



Uztailaren 1ean
Zorionak Unai zure 8. urtebetetzean. Ondo pasa eta musu handi bat familia osoaren partez.



Ekainaren 9an 1972ko kintoek euren arteko aurreneko bazkaria egin zuten. 121 lagun bildu ziren, tartean Madril, Leon, Valentzia, Burgos eta Bartzelonan bizi diren ermuarrak ere. Goizean elkartu, Eguzkialde jatetxean bazkaldu, DJ batekin gozatu eta goizaldeko 5ak inguruan parrandari amaiera eman zioten gehienek Ermuan.



Ekainaren 2an, Urdiñak koadrilakoek urteroko txangoa egin zuten Errioxara.

Hurrengo zenbakirako azken eguna:
UZTAILAREN 10a

 **optika itze**

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnua. 943 17 46 51

komunitateak aseguruak

San Pelayo

aholkularitza fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelaio 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

 **MAYTE**

URDAITEGIA - CHARCUTERIA

Plaza del Mercado
Tel. 17 24 12
ERMUA

 **MALLA ileapaindegia**

Probaleku 8, behea © 943 17 18 50

OUTUMURO

Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

MALLABIA 1980

Argazki hau Mallabiko eskolan aterata dago. Bertan agertzen dira:

Garikoitz Txakartegi, Itziar Pradera, Virginia Bakedano, Mirari Antxia, Maitane Gallastegi, Inma Casado, Igor Olalde, Juan Carlos Garcia, Itziar Suberbiola, Unai Martin, Eneritz Zenikazelaia, Sorkunde Solozabal, Jaione Castañeda, Ana Belen Jimenez, Rosi Prol, Jaime Telleria, Mikel Gerenabarrena, Juanma Ferreiro, Migel Martinez, Igor Dorrio eta Zorion Alberdi.



ERMUA 1960



Argazki hau 1960. urteko abuztuan aterata dago. Bertan agertzen dira, ezkerretik eskumara: Iciar Amesti, (neska ezezaguna turuta jotzen), Maixita Elorza, Manolo Alonso, Maria Elena Olañeta, Alazne Areitioartena, Jose Javier Munarriz, Geli, Arrate Arruti, Arrate Ormaetxea, Amaia Elorza eta Charo Ormaetxea. Lehen planoan, erdi makurtuta dagoen hiru-kotea: Juan Manu Elorza, Ane Miren Mirandona eta Juan Cruz (Lekitxoko lagun bat). Euren ondoan burua bakarrik ikusten zaiola, Encarna Olañeta.



LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



Ekainaren 28an gay, lesbiana eta transexualen harrotasunaren nazioarteko eguna ospatuko da.

**Gaur egun ere horrelako aldarrikapenak egitea beharrezkoa da?
Sexu identitate guztiak onartuta daudela esango zenuke?**

Denok ospatzen dugu egunen bat gurea aldarrikatzeko, baina ez dakit beharrezkoak diren, horrek ez baitu gizartearen pentsamendua aldatuko. Gazte gehienek sexu identitate guztiak onartzen ditugun arren, adindu askok erlijioa dela-eta, ez dituzte gay, lesbiana edo transexualak ondo ikusten.



Malen Eizagirre, 16 urte



Silvia Izarra, 49 urte

Bere garaian egun hauek iraultzaileak ziren, jendeak mugimendu hauen atzean aldarrikapen bat zegoela ikusi zuelako, baina gaur egun ez dira beharrezkoak, kulturaren barruan daude jada. Ez daude sexu identitate guztiak onartuta, onarpen hori norberaren araberakoa izaten da.



Gay, lesbiana eta transexualen harrotasunaren nazioarteko eguna beharrezkoa da, euren eskubideak eta sexu joerak aldarrikatzen dituztelako. Homosexualak eta transexualak ez daude onartuta, gizartearen irainei aurre egin behar izaten baitiote maiz.

David Postigo, 24 urte

Horrelako aldarrikapenak egitea beharrezkoak diren arren, jendeak bere pentsamenduari eutsiko dio. Teorian pertsona askok sexu identitate guztiak onartzen dituzte, baina praktikan ez da horrela. Kultura eta erlijioa dira horren atzean daudenak.



Amaia Urreta, 20 Urte

Ospatzen diren bestelako egunak bezala, gay, lesbiana eta transexualen harrotasunaren nazioarteko eguna txorakeri bat iruditzen zait. Izan ere, halako egunekin ez da gizartearen onarpena lortuko. Ez daude sexu identitate guztiak onartuta eta nire ustez, bakoitza bere buruarekin nahi duena egiteko askea da, eta errespetua funtsezkoa da.



Xabat Osa, 21 urte



Luis Rivas, 50 urte

Egun, halako ospakizunak ez dira beharrezkoak, XXI. mendean pertsona orok homosexualak eta transexualak errespetatu beharko lituzkeelako, baina argi dago sexu identitate guztiak ez daudela onartuta. Pertsona askoren pentsaera aldatzear dago!

Leire Elustondo eta Izara Rivas

akerlei
HEZIKETA-ZENTROA



Bizkaia etorbidea 5
48260 - Ermua
943 17 66 32
akerlei@akerlei.com

Aurrematrikula zabalik:
INGELESA
FRANTSESA
ALEMANA

LHko eta DBHko
LAGUNTZA ESKOLAK
Animatu eta deitu!!



Bar London
Komentukua 2, Ermua
Tlf: 943173312

Uztailak 14, larunbata

- 9.00: Txakurren erakustaldi-lehiaketa Mallabiko Pedro Deunaren zelaian.

- 10.00: Plazako arku-tiro proba.

- 10.00: Errol eta estrategiaren jokoak Lobianon.

- 16.00: Herrien Arteko Xake Partida Azkarren XVII. Lehiaketa plazan.

- 11.30: Su ta gar taldearen kontzertua plazan.

Uztailak 15, igandea

- 10.00: BloodBowl txapelketa San Martin plazan.

- 16.00: Nazio mailako bolo txapelketa San Pelaioko bolatokian.

- 19.00: Emeppo5t taldearekin erromeria plazan.

- 22.30: Beñat Ugartetxea, Julen Sololuze, Alaia Martin, Maddalen Arzallus, Iñaki Aleman eta Mikel Artola bertsolariekin bertso-jaialdia Valdespinan.

Uztailak 16, astelehena

- 19.00: Artaburu eta pepino jolasak plazan.

- 22.30: Napoka Iriaren kontzertua Valdespinan.

Uztailak 17, asteartea

- 19.00: Soka-tira lehiaketa plazan.

- 22.30: 'Arra arraroa' kale-ikuskizuna Metrokoadrokoa taldearen eskutik, Valdespinan.

Uztailak 18, asteazkena

- 19.00: Triatloia plazan.

- 21.00: 'Herri ogitarte-kada' plazan.

- 22.30: Txarangen abesti-lehiaketa plazan. Irlutxa txarangak joko du.

Uztailak 19, osteguna

- 18.00: Areto-futbol txapelketa kiroldegian.

- 19.00: Soka-tira finala plazan.

- 22.30: Tango kontzertua Argentinako El Cachivache taldearen eskutik Valdespinan.

Uztailak 20, ostirala

- Uztailaren 25era arte, taberna, denda eta gazteentzako txokoetan pegatina eta kartelen banaketa.

- 18.30: Paleta txapelketaren finalak plazako pilotalekuan.

- 22.30: Play-back lehiaketa plazan.

Uztailak 21, larunbata

- 10.00: Areto-futbol txapelketa kiroldegian.

- 10.00: Urko 69etan ezetz! IV. Igoera kontratua, plazatik irtenda.

- 11.00: Aldibereko Xake Partida Azkarren XIV. lehiaketa plazan.

- 15.30: Ermua Hiriko I. Slotrally-aren hasiera Lobianon.

- 16.30: X. Mus Txapelketa Herrikoa plazan.

- 19.00: Burgoseko Magisteritzako Tunaren kalejira.

- 19.00: Txindurri taldearen emanaldia plazan.

- 23.30: El sueño de Morfeo taldearen kontzertua San Pelaion.

Uztailak 22, igandea

- 9.00: Areto-futbol txapelketa Kiroldegian.

- 9.30: Mendi-bizikleta XVII. herri martxa plazatik hasita.

- 10.30: Nazio mailako gazteentzako txirindularitza proba Goitondo lantegi gunean.

- 11.00: Irratiz kontrolatutako kotxeen 'XV. Ermua Hiria' txapelketa San Pelaion.

- 12.30: Burgoseko Tunaren kalejira.

- 16.00: 'Euskadiko bolo txapelketa' San Pelaioko bolatokian.

- 18.00: Musika eta dantza jaialdia plazan:

Burgoseko Tuna, Torrelavegako Ntra. Sra. de Covadonga, Burgoseko Villabilla dantza taldea eta Eibarko Aire Andaluz elkartearen eskutik. Janari tipikoak dastatzeko aukera eskainiko dute.

- 22.30: Mocongo Son kubatar taldearen kontzertua Valdespinan.

Uztailak 23, astelehena (Umeen eguna)

- 10.30: Buruhandiak plazan.

- 11.00-13.00 eta 16.00-19.00: Haurrentzako parke eta tailerrak plazan.

- 17.00: Haurrentzako txokolate-jana plazan.

- 19.00: 'Kanpanolue 2' musika-ikuskizuna, Eidabe taldea, plazan.

- 22.30: Chacovachi Argentinako aktoreak '¡Cuidado!, un payaso malo te puede arruinar la vida' ikuskizuna Valdespinan.

BESTELAKOAK**- Uztailaren 2tik 8ra:**

Sallabenteko jaiak eta Erdi Aroko azoka Sallabente auzoan

Patxi López

Yoga eskola

Sanatana Dharma

* Osteopatia
* Bertebrrologia
* Anginak sendatzeko masajea...

San Roke 24, behea
943748593 · 685722131 (Idoia)

TELEFLOR INTERNACIONAL

Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUZKILORE

MIGUEL Harategia

TXORIZOAK ODOLOSTEAK

Probaleku, 3

☎ 17 05 63

ERMUA

(Bizkaia)

hamburguesería TITANIK

Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83



Ermuko

Udal Euskaltegia

IKASTARO TRINKOA IRAILEAN

HELBURUAK

1 Hizkuntza Eskakizuna
2 Hizkuntza Eskakizuna
3 Hizkuntza Eskakizuna
EGA

NOIZ

Irailaren 3tik 28ra

ORDUTEGIAK

9:00etatik 13:00etara
(80 ordu)

16:00etatik 20:00etara
(80 ordu)

MATRIKULAK UZTAILAREN 10-ERA ARTE

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g, 2. Solairua
Tel: 943 17 09 25



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

'DRIVE' AUTO-ASEGURUA

AURREZTUKO DUZU, SEGURU



*Aseguruarekin
aurrezteko,
zure beharrei
hobeto egokitzen
den aseguru
bilatzen lagunduko
dizugu*

Zurekin

SEGUROS BILBAO

ALEX MAESTRE aholkularia

San Pelaio zeharbidea 6 A-B - Ermua

Tel.: 943 17 42 82

aelasores@segurosbilbao.com

**BULEGO
BERRIA
ERMUAN**

**Eroski
gainean
gaude!!**

